

ARGAZKI LEHIAKETAREN OINARRIAK

“DURANGOKO KULTURALAREN MENDEURRENA, 1919-2019”

Durangon egoitza duen DURANGOKO KULTURALAK **“DURANGOKO KULTURALAREN MENDEURRENA, 1919-2019”** argazki lehiaketa antolatu du. Helburua da sormena eta adierazpen artistikoa bultzatzea, Durangoko Kulturalarekin lotutako irudien bidez.

Honakoak dira lehiaketa honen oinarri zehatzak:

1.- Edozeinek parte hartu dezake, nazionalitatea eta adina edozein dela. Lan originalak izan behar dira eta inolako formatutan argitaratu gabeak -ez osorik ez zatika- (Interneten ere ez). Halaber, saritu gabeak izan beharko dute, ezingo dira izan beste lehiaketa batzuetako ebazpenaren zain daudenak, ezta editatzeko prozesu baten erantzunaren zain daudenak ere. Lehen arau hau bete ezik, parte hartzailea lehiaketatik kanpo geratuko da berehala.

2.- Gaiak lotura izan behar du DURANGOKO KULTURALAREKIN.

3.- Zelan aurkeztu: argazkien kopiak argitaratu gabeak izan behar dira, originalak, eta ezin dute erantsita izan beste pertsonak batzuek egindako elementurik. Parte hartzaileek, dokumentuekin batera, oinarri hauen kopia bat sinatuta aurkeztu beharko dute oinarriok onartzen dituztela aditzera emateko. Sinatzeak esan nahi du aurkeztutako lanen egileak direla, originalak eta argitaratu gabekoak direla eta ez ez dutela eransten beste pertsonak batzuek egindako elementurik. Horrela, parte hartzaileek egiaztatzen du bera dela argazkiaren egilea, lana berea dela, originala eta argitaratu gabea.

Argazki bakoitzak titulua izan behar du, eta ondoan, testu labur bat azalduz zelan egin den eta tratamendu digitalik, foto montajerik edo bestelakorik izan duen. Argazkiak ukitu edo orraztu digitalik baduela antzematen bada, eta aipatutako azalpen-testuan egileak ez badu jakinarazi, argazkia lehiaketatik kanpo geldituko da.

Argazkiak paperean bakarrik aurkeztu behar dira. –Gutxienezko neurria, 20x28 cm izango da eta, gehienezkoa, 40x50 cm.

Egile bakoitzak, gehienez, 3 argazki aurkeztu ahalko ditu. Zuri-beltzean, koloretan edo bestelako teknika fotografikoan. Inolako euskarri edota montaje barik aurkeztu behar dira.

Argazkiak gutunazal baten barruan aurkeztuko dira, kanpoaldean **ARGAZKI LEHIAKETA, "DURANGOKO KULTURALAREN MENDEURRENA, 1919-2019"** ageri behar da idatzita.

Barruan, lanarekin batera, gutunazal itxi batean, egilearen datuak sartu behar dira erantsita doan fitxa batean (NAN, izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa).

Argazkiak sinatu barik eta egilea erraz identifikatzeko moduko idatzirik barik aurkeztu behar dira. Atzealdean goiburu edo lema bat bakarrik izango du. Argazkiak baloratzeko irizpideak honakoak izango dira: teknika, mezua, konposizioa eta trebetasuna.

Antolatzaileek ez dute erantzukizunik hartuko lanak hondatu edo galtzen badira.

4.- Lanak honako helbidera bidali behar dira: **"DURANGOKO KULTURALA"** Tabira kalea 62, 48200 DURANGO.

5.- Sari bakarra emango da.

6.- Saria BOSTEHUN eurokoa izango da.

7.- Lanak onartzeko azken eguna 2019ko urriaren 1a (**23:59an**) izango da.

8.- Erabakia apelaezina izango da eta 2019ko azaroaren 10eko jendaurreko sari-banaketa ekitaldian jakinaraziko da. Sarituak ezinezkoa badu bertaratzea, ordezkari bat baimendu ahalko du bere izenean saria hartzeko.

9.- Antolatzaileen esku geratuko dira argazkien eskubide guztiak, besteak beste, erakusteko, erreproduzitzeko, transmititzeko, eraldatzeko eta, oro har, ustiatze era guztietakoak eta sari-emate unean hedatzekoak.

10.- Lehiaketa honetako Antolaketa Batzordeak eta Epaimahaiak, testuei dagokienez, ez dute parte hartzaileekin harreman batere izango, eta ez dute inolako informaziorik emango, ez bada Sari-ematearen Akta Ofizialean bildutako erabakia.

11.- Epaimahai-kideak nor diren lehiaketaren epaiaren berri ematen denean jakinaraziko da.

12.- **“DURANGOKO KULTURALAREN MENDEURRENA, 1919-2019”**

Argazki lehiaketa honetan parte hartzeak arau hauek onartzea dakar, eta berauen interpretazioa Elkarteari eta Epaimahaiari dagokie.

Informazioa: info@culturaldurango.org.